Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Asentzio Gabilondo Albisua

Bergara, Gipuzkoa (1909-2006)

Aurkibidea

Biografia

Muriñondo auzoko Ziarreta baserrian jaio zen. Sanantonabat auzoko Arimendi baserriko Paulina Garairekin ezkondu zen Muriñondoko Malatu baserrira. Hiru seme-alaba izan zituzten. Bergarako Labe Garaietan eta "Textil Muguerzan" egin zuen lan. 90 urterekin oraindik bola-jokoan aritzen zen, beti bezala bere txapela jantzita.

Zintak

BER-226

- **Proiektua**: Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Gabilondo Millet, Joxe Mari
- **Data**: 1996-01-01
- **Iraupena**: 30 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k)**: Etxeberria, Eider
- **Emalea**: Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Elur-zulotik ezin irtenda

- **Erref**: BER-226/002
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:10:43. **Bukatu**: 00:11:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Huescan soldadutzan zegoela, behin elurretan zulo batean sartu eta ezin irtenda ibili zen. Orduan gertatutako istorioa kontatzen du.

2. Ardoa sendagai. Balaz zauritua

- **Erref**: BER-226/004
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:12:04. **Bukatu**: 00:13:22

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Elurretan gaizki pasa eta gero, berba ezin egin egon ziren, eta ardoa edaten zuten sendatzeko. Behin, bala bat sartu zitzaion hankan Jacan; gaur egun, oraindik marka dauka, zaina ebaki zuen, eta hanka ezin mugituta egon zen bederatzi bat hilabetez.

Transkripzioa
- Ardoa, ardo ona, ta hauraxe, eztarrixa gogortuta hillebetian ez da barriketia e?
- Ta ardua eraten ziñuan hori sendatzeko?
- Berba eitten e ahua ebalten najuan, baiña ez zan entzuten ezebe. Ba, gero halakon baten, pasau oskun, beratzi hillebetian etxera etorteke egon nitzuan. Beste baten balia sartu jatan hamen. Oinddio markia hamen jaukat ezagun.
- Hankan? Nola ba?
- Hamentxe. Holaxe. Errebotian jo paretia, ta hamen sartu. Ta zana ebagi, ta hankia holaxe, beratzi hillebete inguruan egon niñuan hau hola ein ezin, e? “No podía. No.” A! holaxe!
- Zuzen? Ezin ziñuan okertu ala?
- Zana ebagitta. Horrek ez dia gizurrak e? Horrek pasautakuak dare.
- Hori nun Jakan edo gerran, edo nun zan hori?
- Jakan zuan hori.

3. Soldadutzako pasadizoak

- **Erref**: BER-226/006
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:13:45. **Bukatu**: 00:15:52

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:
Soldadutzan Teruelera joan zenekoa kontatzen du, bertan gertatutako pasadizoa. Beste behin basora joan ziren gerrako alanbradak batzen. Orduan beste soldadu ondarroar batekin gertatutakoa kontatzen du.

4. Soldadua oilo eske

- **Erref**: BER-226/007
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:15:52. **Bukatu**: 00:16:56

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Beraien baserrian Arizmendin egon zen hilabetez konpainia oso bat. Soldadu batek beraien baserriko oiloak eraman behar zitueneko istorioa kontatzen du. Soldaduari aurre egin zioten, eta azkenean oilo bi baino ez zituen eraman soldaduak.

5. Gorriak Elgetara. kamillero lanetan

- **Erref**: BER-226/008
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:16:56. **Bukatu**: 00:17:56

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Zazpi hilabetez egon ziren gorriak Arizmendin. Elgetara sartu ziren Angiozar aldetik. Hilabete inguru kamillero ibili behar izan zuen, gaixoak eta hildakoak eroaten. Orduko gertakizun batzuk kontatzen ditu.

6. Gernikako bonbardaketan

- **Erref**: BER-226/009
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:17:56. **Bukatu**: 00:20:05

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Gernikan ere egon zen, bertan bizitakoa kontatzen du. Izugarria izan omen zen Gernikakoa, inoiz ez omen du horrenbeste izerdi bota, dena txikituta zegoen. Gernikako arbola ondoko komentuan (Santa Klara) egon ziren.

7. Falangistak

- **Erref**: BER-226/011

- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:21:08. **Bukatu**: 00:22:20

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:
Zubibarriko bidean falangistak egon ziren; "cuerpo a tierra" esan, eta putzu batean etzan ziren.

8. Fusilatutako bi

- **Erref**: BER-226/012
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:22:20. **Bukatu**: 00:23:05

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:
Kostolako bi anaia fusilatu zituzten. Eta zelan gertatu zen kontatzen du.

9. Beraientzako jateko eskasena. Guardia zibilekin istiluak

- **Erref**: BER-226/014
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:23:51. **Bukatu**: 00:26:04

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Beraien jatekoa, jateko txarrena zen eta horri buruz hitz egiten du; baita barre ere. Jacan Guardia zibilekin izandako istilu bat kontatzen du.

10. Hotzak hiltzen

- **Erref**: BER-226/016
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:26:16. **Bukatu**: 00:30:00

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Soldaduek izua sortzen zioten, oso gaiztoak zirelako. Tiro barik hil zen jendea, hotzaren hotzaz. Han ez zuten militarrek agintzen, eguraldiak agintzen zuen, 24 gradu zero azpitik ere egon izan da. Kasurik egin ezean, hil egiten zen jendea. Berotan sartzeko, alkoholdun edariak edatea zen onena.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-19

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com